


B

BARREN

TOKIKOM



Orduan ere, urak handi

IZENAREN IZANA

Elgoibartarron izen-abizenak euskaraz jartzeko kanpaina

Nahi badugu, ahal dugu!



Zureak gaztelaniaz badaude, jarri gurekin harremanetan, eta esango dizugu zer egin behar duzun. Oso erraza da!

Elgoibarko Izarra: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com / 943 741 626
Udaleko Euskara Zerbitzua: euskara@elgoibar.org / 943 744 366

Ikutuz ikutu Elgoibar hamar urteren bueltan

BARRENEKO kideek zeozer idazia eskatu dida-tenez, gogua eman ditt buruan bueltaka darabil-kidazen zurrunbiluei izenburu hau jartzia.

Normalian komunikaziuarekin eta hizkuntzaren kudeaketaren inguruan jarduten dot, hau da, zeharkako gaixetan edo gai "inportantiei" laguntzen dieten beste horretxetan.

Pentsatzen dot eskoletan ondo ikastia dala lehenengo gauzia, enpresetan zerbitzu edo produktu ona fabrikatu eta saltzia, eta herri baten-tzat herritarren bizitza-kalitate onena lortzia eta herrixa aberastia.

Baina hauek zelan lortzen dira? Hemen sartzen dira zeharkako lanak. Eskolan ondo ikasteko, enpresan asko saltzeko, herrixan hobeto bizitzeko, ikutu asko egin behar dira. Ikutu hauek neretzako dira gure inguruarekiko errespetua adierazten dituduzten lanak: ingurumena, berdintasuna, hizkuntza-kultura, bizikidetzak, talde-lana, parte hartzia...

Azken bolaran tokatu jataz lantzia hizkuntzen kudeaketa egokixa (IMHko 30+10 mintegia), berdintasuna (Emakumeak Saretzen), ingurumena zaintzia (aurreko aste buruan Debegesa-

ren laguntzarekin erreka garbitzia eta laster kontsumo jasangarriaren azoka), bizikidetzak (kaleko girua, gizarte berrixa), proiektuen partekatzea enpresetan (Elgoibarren 100 urte beteko dituen enpresa ezagun batek izandako esperientzia arrakastatsua)...

Ikutu hauetan denbora pasan ote nabil? Ez dot uste. Badakit bidian oztopo asko daudela, hankia askotan sartzen dogula, batak eta bestiak bizitza desberdin ulertzen dogula, honek elkarren arteko ez ulertze asko ekartzen dituduala... Guztion parte-hartziakin eta bakoitzak ahal duan neurrixan, ikutu hauek egitten badittugu, eta ikutu hauen bidez elkar ulertzen saiatzen bagera, uste dot hamar urte barru Elgoibarri "atsegin dut" esango diogula, eta geure buruari ere bai.



Edurne Bilbao

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Guztion parte-hartziakin eta bakoitzak ahal duan neurrixan elkar ulertzen saiatzen bagera, uste dot hamar urte barru Elgoibarri *atsegin dut* esango diogula "

URAK BERE BIDEA HARTU ZUENEAN...



1983an herriko kaleak hartu zituen Deba ibaiak.

Euria hasi eta geratzen ez denean, harritu egiten dira batzuk, eta beldurtu besteak. Beldurtzen diren horiek, aurrez ere euri-jasa antzerakoak ikusiak izango dira; ondo dakitenak, uraren kontra ez dagoela ezer egiterik. Urak bere bidea hartzen duenean, laga egin behar zaiola. Ondotxo dakite hori adineko elgoibartarrek; lehenago ere, makina bat bider eza-gutu ditugu ur handiak Elgoibarren eta batek baino gehiagok, orduko ufal haiek izango zituen buruan, orain bi aste euria hasi eta geratuko ez zela zirudien hartan. 1953, 1983 eta 1988 ez ziren urte goxoak izan Elgoibarrentzako. Urak egin zituen bereak, eta Barrenek, orduko argazkiak lekuko hartuta, ekarri ditu gogora. Orain bi astebukaera askoren ahotan egondakoak, orain, hemen, argazkitan.

Ainhoa Mendibil Artetxe



Txarriduna taberna, 1949an zabaldu zenetik, Elgoibarko uholde guztien testigu izan da. Deba ibaia eta Sallobenteko erreka horren gertu izanda, betebetean harrapatu izan dute ur handiek taberna. Uholdeek lokatza laga izan duten moduan, ondo markatuta geratu da uholde guztietan (49, 53, 83, 88) tabernako horman, noraino iritsi den ura uholde-urte bakoitzean. Imanol Urainek erakusten du noraino iritsi zen ura 88an.



N634 errepidea dagoen lekua ikusi daiteke, urak gainezka eginda. Atzean, Sigma lantegia. 1953.



Oraingo aldean lasai ekiten zion jendeak uholdeen ondorioei aurre egiteari. 1953.



Plazak igerileku itxura hartu zuen eta Errosario kaleak ibaiaren kanalarena. 1953.



Urak dakarrena urak daroala entzun izan dugu sarri, baina uholdeek erakusten dute, beti ez dela horrela izaten. 1988.



Lokatza eta urak ekarritako guztiak jasotzen, auzolanerako gaitasuna erakutsi zuen herriak. 1983.

ANALISIA

Datuak datu, urek lagatako ondorioak zenbakietara jasota ikusi daiteke eurite ba-koitzaren tamaina. Alabaina, ezin dugu uste litro gehiago bota izanagatik bakarrik, kalteak handiagoak izango direnik. Beste zenbait faktorek ere eragina dute horretan: urak dakarren zikinkeria, urari egin zaion bidearen egoera, eguraldia...

Orain bi aste botatako litroei erreparatuz gero, ikusiko dugu 88ko uholdeetan baino euri gehiago egin duela azaroko lehenengo egunetan baina 88 hartan baino kalte gutxiago sortu ditu oraingoan euriak gurean. Aurrez egindako obrek ez ezik, aipatutako beste faktoreek ere ahalbidetu dute hori adituen iritziz; baita, euria gogor hasi baino aste bi lehenago egindako zaparradek kale eta estoldak garbitu izanak.

Euri-litro gutxiagok laga zuen orain arteko Elgoibarko uholdeen balantzerik ilunena. Izan ere, datuek erakusten diguten moduan,

1983ko ufalak		1988ko ufalak		2011ko euriteak	
Eguna	l/m ²	Eguna	l/m ²	Eguna	l/m ²
Abuztuak 23	21,8	Uztailak 17	0	Azaroak 4	23,8
Abuztuak 24	34,2	Uztailak 18	9,5	Azaroak 5	115,7
Abuztuak 25	113	Uztailak 19	170	Azaroak 6	135,9
Abuztuak 26	128	Uztailak 20	0,5	Azaroak 7	10,2
Guztira: 297 l/m²		Guztira: 180 l/m²		Guztira: 294 l/m²	

88ko uholdeetan 180 litro ur jauzi zen arren (1983an eta aurten baino 100 litro gutxiago), egun bakar batean bota zuen gehiena eta bederatzi hildako eta material ugari laga zituzten uholde haiek.

1983an ere, euri kantitatea oraingo be-retsua izan zen, baina, orduan 24 familia etxerik gabe geratu ziren, eta 1.200 milioi

pezetako kalteak zenbatu zituzten. Elgoibar hondamen-eremu izendatu zuten.

Aurrerantzean ere, euriari aurre har-tzea zailgia den arren, egoera hobetzeko egin daitekeenaren inguruan eta orain ar-tean egindakoei begira, Antton Alberdi biologo elgoibartarraren iritzia jaso du BA-RRENEK.



ANTTON ALBERDI, biologoa

Deba kanalaren kontra eta arro-mailako kudeaketa integralaren alde

Uholdeak saihestu ezin diren fenomeno naturalak dira. Gainera, hainbat giza jardueren eraginez euren eragin negatiboa handitu egin da azken mendeotan. Ez diot nik, Europako Parla-mentuak eta Batzordeak 2007an onartutako Uholde-arriskua ebaluatzeko eta kudea-tzeko zuzentarauak baizik. Fun-

tsezkoa da uholdeak elementu normal eta ohiko fenomenotzat har-tzea, gainerakoan errealitateari bizkarra emango baikenioke.

Ibaia ez da ubidea bakarrik. Ibaiaren eremua normalean urez bete-ta ikusten dugun lekua baino askoz ere zabalagoa da, bai ardatz ber-tikalean zein horizontalean ere. Uholde-eremua ibaiak noizbehinka ur-pean hartzen duen lekua da, urtean behin, 10 urtean behin, edota 500 urtean behin. Deba ibaia, ia ibilbide guztian kanalizaturik dago; hau da, ardatz horizontala murriztu zaio, eta uholde-eremuaren gainean daude eraikita hainbat herri, tartean Elgoibar.

Elgoibarren, Santa Ana kaleak eta inguruak, esaterako, 100 urtean behin ur azpian gelditzeko probabilitatea dute, URA agentziak eginda-ko uholde-arriskuaren azterketaren arabera. Plazatik Madalarako ere-

muak 500 urtean behin urpean gelditzeko probabilitatea du, aldiz. Ho-rrek ez du esan nahi, ordea, 500 urtez itxaron beharko dugunik Elgoi-barren ufalak ikusteko; probabilitatez ari gara, ez bidentziaz.

Eta orduan, zer egin? Porlana? Badira beste hainbat konponbide, baina ikuspegi globalago bat ezinbestekoa da porlanetik haratago dauden neurriak hartu beharko lirakeela ikusteko. Arro-mailako az-piegitura-, hirigintza- eta baso-kudeaketa egokiak dira ardatza, uholde-arriskua murrizteko, ibaiaren izaera naturala mantenduz.

Deba ibaiak ibaitik gero eta gutxiago du, eta kanaletik gero eta gehiago. Ibaiei arnasa eman behar zaie, eta kanalizatuz ito egiten dira. Dikeek eta hormek gure herria libratu dezakete uholdeetatik, baina ara-zoa Altzolara bidailiko dugu orduan, eta han gauza bera eginez gero Mendarora, eta abar.

Ibaia hor zegoen Villamayor de Marquina fundatu zenean. Guk okupatu dugu ibaiaren uholde-eremua, eta noizean behin berea dena aldarrikatuko duela onartzea ezinbestekoa da. Kalteak murrizteko, or-dea, gauza asko egin daitezke. Ibaiaz haratago dagoena behar beza-la kudeatzea ibaiari hormak jartzea baino eraginkorragoa da. Hori bai, politikariok, mendien kudeaketa ez da 4 urteko kontua, eta ezin da ina-guratu; a zer pena...

Elgoibarko uholde-arriskuaren mapa ikusteko: <http://www.uragen-tzia.euskadi.net/appcont/gjsura/>

Datorren domekan, azaroaren 20an, Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak izango dira.

Nola bizi dituzu domekako hauteskundeak?



Jose Antonio Fernandez
38 urte, okina

Niri hauteskundeak bost ajola! Espainiako hauteskundeak izan edo herrikoak izan, berdin zait. Nik ez dut bozkatu. Alderdi politiko guztiak berdinak iruditzen zaizkit, eta denek interes berbera dutela uste dut: dirua. Gai hau ez zait batere interesatzen.



Enara Etxaniz
21 urte, ikaslea

Urruti geratzen zaizkit Espainiako hauteskundeak, baina bozkatzera joan egin behar gara iruditzen zait. Botua ematea garrantzitsua da. Hala ere, gauzak ez dira gehiegi aldatuko guretzat, eta domekatik aurrera denak berdin jarraituko duela uste dut.



Sergio Alvarez
31 urte, komertziala

Hasieran indiferentziak, nik botua eman nahi nion alderdiari ezin niolako eman. Orain beste modu batean ikusten ditut, eta Madrilan zeozer esan behar dugula uste dut. Hala ere, egoerak hobera egin beharrean, okerrera egingo du, beste bizardunak irabaziko duelako.



Jose Astarloa
63 urte, jubilatua

Nik badaukat bozkatzeko asmoa, behintzat! Espainiako alderdiei kontra egiteko modu bakarra da domekan botua ematea. Badaikit domekatik aurrera ez dela ezer aldatuko, baina jendea animatu nahiko nuke domekan botua ematera joateko.

■ SEMAFOROA



Madalako aparkalekua doan izan beharko litzateke: “Elgoibarren aparkatzeko arazoak daude, baina arazo larriagoa da krisi ekonomikoa herritarrentzat, eta askok egoera ekonomiko latza bizi dute. Hortaz, Madalako aparkalekua doan izan beharko litzateke. Ikusten da, gainera, ordaindu egin behar denean aparkalekua hutsik egoten dela. Hortaz, Udalarri mesedez eskatzen diogu aparkaleku hori doan jartzeko. Mila esker”.



Mintxetako parkean argi gutxi dago: “Mintxetako haur parkean bi farola hondatuta daude, eta argitasun gutxi dago. Udazkenean sartu gara, eta eguna gero eta motzagoa denez, goiz iluntzen du eta umeak ilunpetan jolastu behar izaten dute. Eskertuko genuke farola horiek lehen bailehen konpontzea”.

Herriko berdeguneak txakur kakaz beteta egoten dira: “Bernardo Ezenarro kalean, Anbulategi pareko berdegunean txakur kaka pila bat egoten dira. Ingurune horretan bizi diren txakur jabe askok berdegune horietara eramaten dituzte txakurrak, eta gero ez dute kaka batzen. Beste herri batzuetan aspaldi hasi ziren txakur jabeek isunak jartzen, eta Elgoibarren ere gauza bera egin beharko litzatekeela uste dut”.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaiz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDIARRO UDALA



APTE, APTE DE ELGOIBAR



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Zorionak, Euskadi

Baikor hartzen dugu ETAk jarduera amaturri behin betiko uzteko egin duen adierazpena. Aspalditik itxaroten genuen albisteak izan da. ETAREN aldetik interesatzen zitzaigun komunikatu bakarra zen; amaieraren iragarpena. Eta azkenean, iritsi da. Albiste bikaina da. Amaitu da amesgaiztoa. Azkenean, aurrera egin ahal izango dugu, beldurrik gabe iratzarri, eta geroari itxaropentsu begiratu.

Hain une hunkigarri eta garrantzitsuan, derri-gorrezkoa da gogoan hartzea urteotan intolerantzia bortitzaren tributu krudela ordaindu dutenak. Bere neke eta sakrifizioa ez da antzua izango. Gure oroimenak biktimen gogorapenarekin ongarritua, mendeku goserik gabeko Euskadi berria loratuko du, errespetuan eta askatasunean.

Bakearen ongi gorena hementxe bertan dugu. Euskadik lortu egin du. Euskadik indarkeria makurrarazi du. Zorionak, Euskadi!!!

Une garrantzitsua dugu. Baina horrek ez digu hainbatetan esan duguna errepikatzea eragotziko. Euskadik ez dio ETARI ezer zor. ETA da Euskadirekiko zor larria duena. Indarkerizko jardunaren amaierak eraman behar du armak uztera eta taldea desegitera. Herri honekin hartu duten zorren parte bat da.

Orain benetako Euskadi erakusteko aukera dugu: mundura irekia, bizia, langilea, modernoa, solidarioa. Hori da gure gizartea.

Denon artean etorkizun berri bat eraiki behar dugu. Lehen pauso hau garrantzitsua izan da, ezinbestekoa, baina bidea luzea da. Bakea landu egin behar da betirako bakea lortzeko. Lana, konpromisoa eta ardura denon arteko eta denontzako etorkizun berri bat eraikitzeko. Hau da gure bidea eta bide honetan jarraituko dugu.

Amaitu da jada ETAREN, Euskadi ta Askatasunaren aldia. Orain hasiko da Askatasuna ta Euskadiren aldia. Zorionak, Euskadi!

EAJ-PNV

Arnaldoren omenezko kontzertuagatik esker onez

Motzean idazteko eskatu diguten arren BARRENtik, Arnaldo Askatu Plataformatik ez dugu aukera hau galdu nahi, urriaren 27an ospatu zen kontzertu arrakastatsua, bai Herriko Antzokian bai internetez, jarraitu zenuten ehunka lagunei

gure esker ona adierazteko. Baita ere antolaketa konplexu hau aurrera ateratzen lagundu zeniguten guztiok ere nahi zaituztegu zoriondu eta eskertu; zuen bultzada, inplikazio eta konplizitate gabe ezinezkoa litzatekeelako hau.

Jakinarazi nahi dugu kontzertu honetako emaitzak izango duela segida hurrengo hilebetetan. Izango duzue honen berri! Animo eta jarrai dezagun denon artean garai itxaropentsu berri hauetan gure aldarikapenak plazaratzen!

Arnaldo Askatu Herri Ekimena

The continuation

Zera esan nahi dizuegu: herritarrek ibaira botatzen dituen zaborrei bizkarra ematen ari zerate. Baita herriko gazte ekintzaille eta ingurugururekiko errespetuz jokatu nahi dogunokin elkarlanian jarduteko aukerak galtzen ere, nahiz eta "printzipioz" helburu berdinar izan. Sinergiaz berbetan asko entzun dizuegu, ba eman ezazue ejenplua!

Ez dogu inguruarekiko dozuen konpromiso mota ulertzen, ezta ere, helburuetara iristeko markatzen dituzuen bideak. Ez dogu ulertzen, bi urte hauetan elkarlanerako egin dizkizuegun proposamenen erantzunak, zaborra zegoen tokian lagatzia edo ibaia Udalan eskumena ez dala esan eta hain lasai geratzia. Proiektu haundi eta potoluetan sartzen dozue Elgoibar, hitz polita eta oso modakoak erabiliz eta argazki "esklusibua" bilatuz. Herritarrengandik oso urrun egiten dozue lan. Ibai Lagun programia martxan jarri da, baina gogoratu, Gazte Asanbladak azken bi urtetan Deba ibaian garbiketarako egin ditutuala, eta lehenago urtero antolatzen zuala Sallobente errekeren garbiketara.

Badakizue, nahiz eta egoera horretan ikustera ohittuta gauden, ibaia ez dala zementu eta harri artian sartu biharreko ubide soil bat, Europako uren arteztarauak ez ditugu betetzen, eta 2015ean etorriko dira hirritarren segurtasuna eta ibaiaren osasuna bermatzeko sortutako lege horrek ez betetzian isunak. Hori jakinda ere, berdiñetan jarraitzen dogu, gauzak ganoraz egitea garestigaxua dalako edozein modutan egittia baiño. Diozuen bezela, "ibaia baliabide garrantzitsu" bezela hartzen dozue nian aldatuko dira gauzak.

Elgoibarko Gazte Asanblada



Zuhaitz
Gurrutxaga

Kaixo, Unai! Orain hilabete eskas, Donostiako Doka kafe antzokian aspaldiko ametsa bete nuen. Aitor Badiola eta Maria Armendariz elgoibartarrekin batera,

Vanpopel taldearen lehen diskoa aurkeztu genuen. Esperientzia ederra izan zen, familiakoen, lagunenen, ezagunen eta beste hainbat jende ezezagunen epeltasuna jaso baigenuen. Orduz gero, lan zail bat tokatu zait, futbol profesionala eta musika uztartzearena. Asteburutan izan ohi dira futbol partidak, eta noski, kontzertuak eskaintzeko egunik aiposenak ere ostiralak eta larunbatak dira. Joan den astean adibidez, ostiral gauz izan genuen Azkoitin kontzertua eta larunbatean, aldiz, partida Irunen.

“Ederra da kirol profesionala, baina zenbat gustuko gauzatatik aldendu gaituen urteotan?”

23:00etan jotzen hasi, eta ondoren, traste guztiak batu orduko, gaueko ordu txikietan iritsi nintzen etxera. Beharrezko zortzi-bederatzi orduak lo egin nituen, makarroi platerkada bat jan, eta futbol zelaira abiatu nintzen. Oraingo honetan, partida galdu arren, gustura gelditu nintzen eginiko lanarekin, baina argi dut ez dela erraza izango aipaturiko bi lanok ongi uztartzea. Gauza da Unai, musikak asko betetzen nauela, oso gustuko dudala. Baina beste behin, kirolari izateak, kirolekik aparte daukadan beste zaletasunen bat alboratzera behartuko nauen beldur naiz.

Ederra da kirol profesionala Unai, baina zenbat gustuko gauzatatik aldendu gaituen urteotan? Dena ezin edukil!



Unai
Arrieta

Ulertzen zaitut bai, Zuhaitz. Ulertzen dut kirolaz kanpoko jardueretik interesak sorrarazten dizun gatazka. Ni ere aurkitu izan naiz antzeko egoeretan. Garai batean dantza egiten nuen, Haritz dantza taldean. Denborarekin utzi egin behar izan nuen. Bestalde, nekeza egiten ari zait kirola eta ikasketak uztartzea.

Laburra da gure kirol bizitza, Zuhaitz, eta aldi berean estua. Askotan halako fanatismo edo buruberotasun batek gaixotzen gaitu, munduan kirolaz beste ezer izango ez balitz bezala jokatuz. Itxutasunez gorputza eta arima kirolari ematen dizkiogu, gainotzeko jarduera, bokazio-interes, prestakuntza akademiko eta bizitza soziala baztertuz.

“Miresten zaitut baloiaren borobila ez duzulako zure bizitzaren esfera bakar”

Miresten zaitut, Zuhaitz. Miresten zaitut baloiaren borobila ez duzulako zure bizitzaren esfera bakar. Berdeguneetatik kanpo lantzen ari zaren alor horiek harridura handia sortzen didate, eta baita estimazioa ere. Egiten ari zarena apartekoa, ederra eta ohizkanpoko delako iruditzen zait.

Segi ahal duzun heinean bide horiek urratzen! Iruditzen zait darabilkizun gogo-asmo horiek, etorkizuneko kirol erretretaren pentsio planik onena direla. Bizitza berri baten norantzaren oinarriak finkaturik daukazazu.



Jarri ezazu zure publizitatea gabonetako alean

B
BARREN
astekarian
943 743 704

Foru Aldundiak ez du sartu Pilarreko zahar etxea 2012ko aurrekontu proiektuan

Udalak Pilar ikastetxea egon zen eraikina bota eta orubea prestatuko du 2012an

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012rako aurrekontu proiektua onartu zuen joan den urriaren 28an, eta aurrekontu proiektu horretan ez dago jasota Pilarreko zahar etxea eraikitzeko diru partidarik. Elgoibarko Udaleko arduradunak kezkatuta daude erabaki horrekin, baina behin betiko aurrekontuak abenduaren 23an erabakiko ditu Foru Aldundiak, eta Elgoibarko Udalak oraindik, badu Pilarreko proiektua aurrekontuetan sartuko duten itzaropena.

Pilar ikastetxea egon zen gunean zahar etxe bat egiteko lanak 2012an hasita aurreikusten zuten Elgoibarko Udaleko arduradunek, eta, era berean, 2014. urte amaierarako erabiltzeko prest egongo zirela Gerontologi zentroa, Eguneke Zentroa eta buruko gaitzak dituzten gaixoentzako unitatea.

Zahar etxea eraikitzeko asmoa, baina, "stand by" egoeran, geldirik, dagoela azaldu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012 eta 2013 urteen artean hiru milioi eu-



ro jarriko zituela aurreikusten zuten Elgoibarko Udalak, baina Diputazioaren 2012rako aurrekontu proiektuak ez du halarik jasotzen.

Udalak eraikina botako du

Udalak bere kabuz hasiko dituela lanak aurreratu du Elgoibarko alkateak.

"2012rako aurreikusita geneuzkan lanei ekingo diegu, hau da, eraikina bota eta orubea prestatzeari". Foru Aldundiak Pilarreko zahar etxea egin egingo dela esana duela gogoratu du Etxeberria, eta Aldundiak zahar etxearen proiektua gelditu baino, sasoi hobeen esperoan atzeratu izana espero du Elgoibarko alkateak.


Txina izan da '30 + 10' mintegiko herrialde gonbidatua



Katalanak, txinatarrak eta euskaldunak batu ziren atzo IMHn, enpresetan egiten den hizkuntzen-kudeaketari buruz berba egiteko, 30+10 mintegiaren 6. edizioan. Aurten Txina izan da herrialde gonbidatua, eta hango egoera aztertu dute, bereziki.

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak 2006an antolatu zuen estreinakoz 30 + 10 mintegia, enpresetan hizkuntza-kudeaketa egiteko dauden moduak ezagutu eta zabaltzeko. Aurtengo mintegian hainbat erakunde, ordezkarri eta enpresa eragilek hartu zuten parte: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta Berrikuntza, Confefaskek, Anbotogrupak, Gipuzkoako Txinatar institutuak. Hitzaldiez gain, bi mahai-inguru izan ziren, ekintzailetasuna eta lidergoa joratzeko.

Lekua **Pedro Muguruza eta Gabriel Krutzelaegi**



Gabriel Krutzelaegi eta Pedro Muguruza-ren arteko trenbidea gainditzeko bi igogailu eta pasabide bat eraikiko dituzte. Aurrikusitakoaren arabera, hil honetan hasiko dituzte lanak, eta bost hilabeteko epea izango dute amaitzeko, baina Euskotrenek obrak hasteko baimena emateko zain dardela jakinarazi du Ricardo Garate Hirigintza arduradunak. Lanak amaitzean Gabriel Krutzelaegi eta Iñiguez Karkizano kaleak Melitongo zubiarekin lotuta geratuko dira. Horrek herri barruko trafikoan aldaketak egiteko aukera ematen du, eta besteak beste, Pedro Muguruza etorbidearen noranzkoa aldatzea aztertzen dihardu Udalak.

Berbia **Lapurreta**

Hainbat lapurreta izan dira azken egunetan Elgoibarren, eta horietako batzuk indarke-riaz. 13 urteko mutiko bati sakeleko telefonoa ostu zioten zapatuan, eta ondoren ukabilkada bat eman zioten. Erasotzaile berberak, labana atera zien inguruan zegoen bikote bati, eta dirua, telefonoa, eta musika entzuteko aparatua kendu zien. Horrez gain, astelehen gauean, udaltzainek hiru lagun atxilotu zituzten, San Bartolome kaleko denda batean lapurtzeko ahaleginean. Era berean, joan zen astean, hiru autotan egin zuten lapurretan San Roken.

Irudia **Ibaia garbitzen**

Debegesak antolatu-tuta, Deba ibaiko bazterrak garbitzen jardun zuten joan den domekan 60 boluntariok Elgoibarren, Mendaron eta Deban. Elgoibarren 16 lagun batu ziren, eta Mendaron 13. Hiru orduz jardun zuten lanean, eta guztien artean hondakinez beteriko 150 poltsa atera zituzten. Plastikozko botilak eta bilgarriak, gurpilak eta abar aurkitu zituzten ibaian, eta Debako boluntarioek bizikleta zahar bat ere atera zuten uretatik.



Debabarrena areto futbol taldea saritu dute, Diarivasco.com sarietan

Joan zen astelehenean Diarivasco.com sariak banatu zituzten, eskualdeko bizi-kalitatea eta herriak hobetzen diharduten taldeei euren lana aitortzeko. Txariduna hotelean egin zuten sari banaketa, eta besteak beste, Elgoibarko Debabarrena areto futbol taldeari eman zioten saria. Ricardo Garate kirol zinegotziak eman zion saria Jose Ramon Iriarte Debabarrena-ko presidenteari. Bestalde, Mendaroko Ospitala ere saritu zuten.



Mendaron aurkitutako gorpua Soraluzeko gizon batena da

40-50 urte bitarteko gizoneko baten gorpua aurkitu zuten domekan Mendaron, Deba ibaian. Txirrindulari batek ikusi zuen hilotza errepidetik, eta Ertzaintzara deitu zuen. Hasierako hipotesia- ren arabera, joan den asteburuko euriteen eraginez iritsiko zen gorpua Mendarora. Ertzaintzak lortu du gorpua identifikatzea, eta Soraluzeko Ignacio V.G. da hildakoa.

Abenduaren 13an hasiko da jubilatuen astea

Abenduaren 13tik 18ra ospatuko dute aurten jubilatuen astea. Hilaren 13an txokolate jana egongo da, gabonetako otarrak zozketatuko dituzte eta hilaren 15ean 80 urtetik gorakoentzako bazkaria egongo da. Egun berean, aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte. Bazkarirako izena emateko azken eguna abenduaren 1a izango da.



Dena prest Espainiako Hauteskundeetarako

Domekan egingo dira Espainiako Kongresurako Hauteskundeak eta dena prest dago, jada. Elgoibartarrek goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte izango dute botua emateko aukera. Oso garrantzitsua da botua ematera identifikatuta joatea, beraz, NAN edo gidabaimena edo norbera ezagutzeko beste dokumenturen bat eraman beharko da. Alderdi politikoei bi astez jardun dute kanpaina politikoa egiten eta herritarrei botua eskatzen. Aste honetan PSE-EE, EAJ eta Amaiur alderdietako kideak ibili dira Elgoibarko kaleetan. Eta Mendaron, gaur arratsaldean egingo dute Amaiurren ekitaldi politikoa.



Amaiurren aldeko erretratuak atera zuten hainbat herritarrek Mendaron joan zen asteburuan, *Eraiki zubia* lelopean, eta gaur, 19:30ean hasita ekitaldi politikoa egingo dute, Mendarozabal plazan.



Amaiurreko Rafa Larreina, Maite Sarasua eta Mainer Carrere Elgoibarren izan ziren martitzenean, elgoibartarrei botua eskatzen. Zapatuan, bestalde, herri-argazkia atera zuten Plaza Handian, Amaiurri babesa emateko.



EAJ alderdiko autobusa martitzenean iritsi zen Plaza Handira. Elgoibarko eta Mendaroko jeltzaleekin batera, Arantxa Tapia kongresurako hautagaia izan zen alderdiaren informazioa banatzen.



PSE-EEK atzo egin zuen gure herrira bisita. Odon Elorzak IMH eta Asmaola bisitatu zituen, eta ondoren, larrosak banatu zituen merkadilloan, Fernando Suarez eta Nerea Alustiza Elgoibarko zinegotziekin batera.



DEKORAZIO

GEHIGARRIA

Bizitzeko edozein leku egoki bihurtu dadin zorua jarrita izatea ezinbestekoa da. Gehien erabiltzen diren materialak zeramika eta egurra dira. Oraingo honetan egurrak dituen aukerez hitz egingo dugu, tarima, parketa eta parket flotatzailea.



nu-van

proiektu eta altzariak

Bernardo Ezenarro 17,
943 74 74 14



SANTOS sukaldeak

Basarte 3, 943 03 36 72



Zure etxeko zoruak berritzeko hiru aukera

Tarima, klasiko bat

Egur oholak kalitate onekoak izan ohi dira beti eta oso iraunkorra izatea da zoru honen abantaila handiena. Nahiz eta denboraren poderioz egur oholtzaren itxura berritzeko lixatu beharra izan egur oholak izaten duten lodieragatik higadura ez da antzematen.



Parket itsatsia

Egur xafiak dira, porlanera arotzen kola berezi batekin itsasten direnak. Lana ondo egina izan dadin zoru erabat parekatua egon behar da. Parket itsatsia kalitate onekoa bada, inongo arazorik gabe lixatu daiteke.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3. sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

TELLABIDE
ITURGINTZA

Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062

Maller aroztegia

Tarimak eta parket flotatzaileak
Horma-armairuak
Ikea altzarien muntaia
Ateak

689 619 845

Eskatu ezazu aurrekontua inongo konpromisurik gabe!

LODOSO LEIHOAK

Zure nearrira egindako lana

- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA

Aluminio-egurrean espezialitatea

Leihotetan PLAN RENOVE
22 Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Sigmako Industrialdea, Xixilon, 2. pabilloia, 3. zenbakia
Tel.: 943 74 34 90 Faxe: 943 74 73 12
www.lodoso.es
fjodoso@euskalnet.net


SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA BERRIZTATZEAK S.L.

- Amiantoa
- Fibrozementoa
- Gasa
- Berokuntza
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Eguzki energia

Ursandi kalea 17. behea
Tel.: 943 740 530
635 714 905
Faxe: 943 531 825
igorsantana@euskalnet.net
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Parket flotatzailea

Egur xafla luzeak dira eta ez dira ez lurrean iltzaten ezta itsasten ere. Neoprenozko mintz baten gainean jartzen dira. Bi pieza aurkitzen dira xafla arra eta xafla emea, hauek,



puzzle baten antzera osatzen eta itsasten dira. Parket flotatzailearen abantailarik handiena bere kalitatea eta akaberak dira, xaflak doitasunezko makinak dauden tailerretatik etortzen baitira barnizatu eta itsatsiak.



iturgintza

GOKI

ERREFORMAK



OBRAK FINANTZIATZEN DITUGU

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 254 522

AN

INTERIORES

PEDRO MUGURUZA ETORBIDEA, 5
ELGOIBAR
TLF. FAX 943 743245
an@an-interiores.com

iPad2 3G bat irabazi !



bm rekin hilero iPad2 3G bat irabazi dezakezu. Partizipazio kupoia bete besterik ez dakazu zure erosketarekin



FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
Erakusketa/Faxa: 943 531 847
Floren Cld: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOILA
- AIRE EGOKITUA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGAIAK
- ERREFORMAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA



IMAR
ARROZTEGIA

Tel/Faxa: 943 531 471
Mugikorrak: 609 054 978
Olaso poligonoa 15, 55 CH
L_rua8@hotmail.com

- Etxe barruko ateak eta blindatuak
- Tarimak eta parket flotatzailea
- Horma-armairuak
- Sukaldeak eta etxetresna elektrikoak

ETORRI ZAITEZ ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA

Urasandi, 22 behea
20870 Elgoibar
Tel.: 606 706 204
Faxa: 943 743 372

E. ARANDIA

ERREFORMA ETA LEIHOAK

- ◆ Erreformatz orokorrean (etxebizitza, garajeak, lokalak, ...)
- ◆ Debabarrenaeko leihoen montajea.

Eusko Jaurlaritzaren %22ko subentzioa lehiotzetan!

PAGOERROTA

iturgintza

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)

Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

E-mail: pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com - www.pagoerrotaiturgintza.com



Izen-abizenak euskaratzeko kanpaina jarri dute martxan

Urte amaierara arte egongo da kanpaina martxan

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak *Izenaren izana* kanpaina jarri dute martxan, *Izenaren izana* programaren barruan, eta urtea amaitu arte iraungo du. Kanpainaren helburua elgoibartarron euskal izen-abizenak euskaratzea da, erdal grafiaz idatzitako euskal izen-abizenak euskaraz jartzea, hain zuzen ere.

Historian zehar hamaika arazo izan dira euskaldunen izen-abizenak euskaraz idazteko, baina kanpainaren antolatzaileen esanetan, gaur egun ez dago aitzakiarik euskal izen-abizenak euskaraz erregistratzeko. Hala ere, oraindik, elgoibartar askok dauzkate izen-abizenak gaztelaniatzko grafiarekin erregistratuta, eta horiek aldatzeko asmoz jarri dute martxan kanpaina.

Parte hartu nahi dutenek, Elgoibarko Izarraren eta Udaleko Euskara Zerbitzua- ren laguntza izango dute, eta aldaketa



egitea "oso-oso erreza" dela argitu dute. Beraz, animatzen diren guztiek, Elgoibarko Izarran (943 741 626) edo Euskara Sailean (943 744 366) eskatu dezakete informazio gehiago.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte

Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko nazioarteko eguna da, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron, *Beldur Barik* egitasmoaren barruan.

Astelehen arratsaldean tratu onei buruzko hitzaldia eskainiko du Norma Vazquezek, Kultur Etxean. Datorren astean, berriz, Beldur Barik lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa egongo da Kultur Etxean, eta hilaren 25ean bertan elkartratzea egingo dute Plaza Handian. Jarraian, lehiaketako sari banaketa egingo dute, Kultur Etxeko sotoan.

Mendaron, bestalde, bi mural margotuko dituzte hilaren 25ean, Goñati pilotalekuan 17:00etatik aurrera. Mural bat gaztetxoek margotuko dute eta bestea, etxeko txikienek. Ondoren, par-

te hartu duten guztiei txokolatea eta bizkotxoak emango dizkiete, eta puntu lila-dun poltsak zozketatuko dituzte. Horrez gain, astean zehar puntu moreak margotuko dituzte ludotekan, eta gaztelekuan *Te doy mis ojos* pelikula ikusi eta aztertuko dute.



Santa Zeziliaren omenez

Datorren martitzenean, hilaren 22an Santa Zezilia eguna dela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte datorren asterako. Musika Eskolak kontzertua, diploma banaketa eta trikitilarien, txistularien eta akordeoilarien kalejirak antolatu ditu. Lehenengo biak astelehenean izango dira Musika Eskolako auditorioan, eta kalejirak martitzenean. Horrez gain, ikasleen kalejirak antolatu ditu Ikastolak Santa Zezilia egunerako, goizez eta arratsaldean. Eta bukatzeko, hilaren 27an Santa Zezilia eguneko, kontzertu berezia eskainiko du Udal Musika Banda, Herriko Antzokian, eta kalejira ere egingo dute.

Ikus-entzunezko emanaldia antolatu du AEK-k

Saharako basamortuan eta Mongoliako estean eta taigan zehar, Asier Aranzabal eta Mila Gallastegi eibartarrek zaldiz egindako bi bidaien ikus-entzunezko kontakizuna eskainiko dute datorren martitzenean, hilaren 22an, 15:00etan Kultur Etxean. Euren bidaien kontakizuna bildu du bikoteak ikus-entzunezkoan. AEK euskaltegiak antolatu du emanaldia, Kutxaren laguntzarekin.

'Urban Show ' hip hop ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Joan den urteko esperientziarekin, aurrean ere antolatu du *Urban Show* dantza erakustaldia Dance&Smile taldeak. Bartzelonako, Alacanteko, Kantabriako eta bertoko taldeek egingo dute dantza abenduaren 16ko ikuskizunean, eta dagoeneko salgai daude sarrerak. Sarrerak 6 euro balio ditu aurrez erostekotan, eta 8,5, egunean bertan erosiz gero. Elgoibarren sarrerak erosi nahi izanez gero, Iriondo Kirok eta Amagoia Gozotokia dendetan dago aukera, eta baita Interneten, antolatzaileen atarian ere: www.danceandsmile.com.



ASIER BAGLIETTO

ON:GIZ BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEKO KIDEA

“Gizonok ere badugu zer egina patriarkatua eta sexismoa garaitzeko”

Azaroaren 25a izango da gaur zortzi: Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Baina tamalez, indarkeria matxista ez da egun bateko kontua eta bizi dugun egoerari aurre egiteko tresnak eskaintze bidean, Udaleko berdintasun sailak hainbat ekintza antolatu ditu datozen asteotarako. Tartean, egunero-egunero sistema patriarkatuak sortu eta mantentzen dituen botere-harremanen aurrean, ikuspegi berri batekin lanean diharduen On:Giz elkartearen eskaintza ere jaso du Berdintasun Sailaren programak. Asier Bagliettok urteak daramatza berdintasunaren aldeko lanean murgilduta, besteak beste, On:Giz elkartearen bitartez. Atzo *Estu-pilulak* antzerki-foruma gidatzen jardun zuen gurean eta saioan lantzen diren gaien inguruan aritu da **BARREN** berarekin.

‘Estu-pilulak’, bereziki gizonetzkoel begirako antzerkia dela diozue; zergatik?

Antzerki-foruma On:giz elkartearen egitasmo bat da, eta On:giz berdintasunaren alde lanean ari den elkarte da, baina batik bat gizonak berdintasunaren aldeko lanean txertatzearen alde egiten du. Izan ere, gizonok ere badugu zer egin patriarkatua eta sexismoa garaitzeko, gizonak ere, kolektiboki eta indibidualki patriarkatuak zapalduak baikaude.

“Zapaltzaile izateko entrenatzen gaituzte: beldurra eragiteko, borroka egiteko, zenbait emozio ez sentitzeko”

Esango zenuke, beraz, gizon zaren aldetik, patriarkatuak zu ere zanpatzen zaituela? Baina eta emakumea bazina?

Bai noski, ni gizon bezala eta pertsona bezala, zapaldua naiz, nahiz eta gure zapalkuntza askoz zailagoa den ikusten. Sistema patriarkal edo sexista hau zapalkuntzan oinarritzen da, eta noski, zapalkuntzak bere horretan iraun dezan zapaltzaile batzuk behar ditu eta hala izan daitezten entrenatzen ditu. Gure gizartean gizonak esleitu zaie bereziki (baina ez bakarrik) zapaltzaile izateko funtzioa eta horrela uler dezakegu txiki-txikitatik nola prestatzen gaituzten beldurra eragiteko, borroka egiteko, zenbait emozio ez sentitzeko (beldurra, enpatia, gure eta besteen minarekin ez hunkitze...), Zapaltzaile izateko entrenatzen gaituzte eta horretarako gure gizatasuna eta gure sentitzeko gaitasuna alde batera utzi behar ditugu. Noski, sistemak ez du lortzen beti nahi duena, zorionez, eta honela ikus dezakegu gizon askok harreman gizakioak dituztela beraien ingurukoekin, emozioak adierazten dituztela, ingurukoak zaintzen dituztela... Aldi berean, emakume batzuk ere sexismoa igortzeko funtzioetan aritzen dira, sistemak hori saritu egiten duelako, eta beraz badira zapaltzaile moduan aritzen diren emakumeak. Kontua ordea, ez da zapalduago zein dagoen eztabaidatzea. Sis-

tema sexista honek pertsona oso izateko daukagun berezko gaitasuna ezabatu eta zapaltzaile-zapaldu roletan kokatu nahi gaitu, sistema borrokatu beharrean gure arteko borrokan galdu gaituzten; hortaz jabetu beharra daukagu aldaketa eragiteko. Alegia, ez dugula sexuen gerran sartu behar, edota ez dugula errudunak bilatzen itsutu behar. Ardura da garrantzitsua; gutako bakoitzak ditugun jarrera, portaera eta ekintzen arduradun egitea eta ikustea hor, noraino ari garen besteak eta gure burua ondo tratatzen, giza-legez edo gizakoi.

Antzerki-forumean Juan Caballero da protagonista, eta berarekin maskulinitate hegemonikoa duzue hizpide. Nola definituko zenuke maskulinitate mota hori?

Hegemonikoa esaten diogu, nagusia denari. Baina noski, gizon izateko modu asko daude. Hala ere, badago eredu bat aurreko belaunaldietatik datorrena eta gero eta pitzatuago dagoena, feminismoak eta LGTBQ (Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Queer) mugimenduak egindako lanari esker. Eredu hori adibidez, erraz identifikatu daiteke gure aitona-amonon gizartean, baina orain zailagoa da errekonozitzen. Antzerkian, pasarte batean, oso argi definitzen da nolako gizonak diren sistema honek bultzatzen dituenak: adoretuak, zorrotzak, hitzekoak, ausartak, kementsuak, buruargiak, bizkorak, sendoak, indartsuak, ar peto-petoak, adimentsuak, autoritarioak, bikainak, eraginkorak, zuzenak, burujabeak, independenteak, prestuak, konkistatzaileak, sexualki grinatsuak, publikoak, lehiakorak, babesleak eta langile finak. Finean, pertsona guztien parte diren ezaugarri asko erabat desagertzen dira gizon eredu honetan eta beste batzuk muturreraino eramaten. Maskulinitate eredu zapaltzailea gradu desberdinetan garatzen da pertsona bakoitzarengan eta gure jarreretan.

Eta zer esango zenieke, biolentzia matxista gizonetzko zehatz batzuen arazo psikologikoekin arrazoitzen duten horiei?

Galdera batekin erantzungo nieke. Zergatik arazo psikologikoak dituzten emakumeek ez dituzte (neurri berean, behintzat) euren bikotekide edo gertukoak erasotzen? Alegia, indarkeria matxista ez da arazo pertsonal bat, arazo soziala baizik. Gizarte hau tratatu txarretan eta indarkerian oso entrena-

tuta dago, ikusi besterik ez dago komunikabideetan jasotzen dugun zabor piloa, eta lehen esan bezala, gizonak bereziki prestatzen gaituzte indarkeria hori erabiltzeko. Gero, noski, faktore pertsonalak (buru gaitoxotasunak edo bestelakoak) hor daude eta badute beraien eragina, baina arazo nagusia gizartearena da, indarkeria naturalizatuta eta ia legitimotzat hartzen duen gizartearena. Eta azpimarratu nahi nuke azken muturreko indarkeria ezabatu ahal izateko, egunerokoan, harreman askotan dagoen tratatu txarra eta indarkeria sotila ezabatu behar dugula, tratatu txar txikirik gabe oso zaila da eta muturreko indarkeriara iristea.

“Indarkeria matxista ez da arazo pertsonal bat, arazo soziala baizik”

Joan den asteburuan ere, bost gizon atxilotu dituzte emakumeei eraso egitea leporatuta. Zein da, zure ustez, egoera hau gainditzeko bidea?

Ez da bide bakarra egongo, bide askotatik ekin behar diogu, eta ari gara, baina indar gehiago jarri behar dugu, arazoa larria baita. Beharrezkoa da tratatu onetan entrenatzea denok, elkarren zaintzan, elkarri arreta ematen, isolamendua apurtzen eta elkartasuna eraikitzen. Horrekin batera, lehen esan bezala, tratatu txar txiki horiek identifikatzea garrantzitsua da, kontzientzia hartu eta gainditzeko. Eta bukatzeko, gizarte osoa inplikatu, emakumeek protagonismoa hartuz, pertsona moduan dagokien botere eta duintasunaren jabe eginez, eta gizonok boterekeriak bazterrean utziz eta ingurukoekin eta gure buruaren zaintzan arreta jarritz. Uste dut Feminismoak urteak daramatzala honetan lanean, eta arreta handia jarri behar diogula mugimendu zabal honek egindako lanari, enfoke desegokiak, sentsazionalista eta partzialak saihesteko aldera.

KLUB XUMEA BEZAIN HANDIA

CD ELGOIBAR



Klub xumea eta aldi berean aberatsa da CD Elgoibar. Dirutza handirik eduki ez arren, aldagarik osasuntsuena dauka, familia bat osatzen dute klubeko kide guztiek. Eta horrek egiten du kluba aberats. Jokalarien grinak, entrenatzaileen profesionaltasuna, zaleen berotasuna eta zuzendaritzaren bokazioa. Horrek guztiak osatzen du CD Elgoibar.

Ainhoa Andonegi

Aurtengo denboraldirako helburu lorgarriak jarri ditu CD Elgoibarrek, eta momentuz, "pozik" daude emaitzekin. Juan Martin Molins presidentearen arabera, taldeak, oro har, ondo ari dira euren eginbeharrak betetzen, baina Haundi une gogor bat pasatzen ari da. Denboraldia oso ondo hasi zuen, baina azken jardunaldietan ez du puntu askorik lortu, eta beheko postuetan dago. Hala ere, itxaropentsu daude zuzendaritzako kideak, eta ez dute uste Hirugarren Mailari eusteko arazorik izango duenik. Horixe da aurtengorako Haundiren erronka, alegia, mailari eustea.

Haundi da CD Elgoibarko talde gorenena, eta izenak berak dioen moduan, handia da taldea. Hirugarren mailan lehiatzea ez da erraza, izan ere, Bizkai aldean talde oso gogorak daude, eta gainera, diru askoz gehiago daukate. Hori dela eta, Elgoibarko jokalar asko joaten dira Bizkaiko taldeetara

jokatzerara, eta Haundik ia urtero talde berria osatu behar izaten du.

**Hamar talde eta
230.000 euroko
aurrekontua dauka
aurten CD
Elgoibarrek**

CD Elgoibarrek ezin ditu jokalariai diruz lotu, baina bai sentimenduz. Molins berak esan bezala, kategoria honetan ez dago Haundik daukana moduko aldagaririk: "Jokalaria guztiak primeran konponetzen dira, eta emaitzak nahi bezalako

onak izan ez arren, giroa bikaina da Haundiren aldagelan".

Mintxeta, dotorea baina hotza

Hirugarren mailako futbol zelairik dotoreena da Mintxeta, eta harro esan du hori Molinsek. Hala ere, azken urteetan txiki geratu dela adierazi du, eta egun batzuetan 40 ume aldagela batean moldatu behar izaten direla azaldu du. Dena den, ez da hori Mintxetak daukan arazorik nagusia. Futbol zelai dotorea, baina hotza da Mintxeta. Gogoan dauka Molinsek Lerun zaharra, eta Mintxetak ez dauka harekin zerikusirik. Harmailak zelaitik urrun gertzen dira, eta jokalariek ez dute zaleen berotasuna igartzen. "Lerunen herritar guztiak gainean geneuzkan, eta hori oso polita zen".

CD Elgoibar klub handia da, eta argi ikusten da dirua baino gehiago behar dela aberatsa izateko.



Juan Martin Molins
Klubeko presidentea

“Haundin herriko jokalariaik egotea da gure nahia, baina oso zaila da”

Nola iritsi zara CD Elgoibarko presidente kargura?

65 urte dauzkat, baina gazte gaztetatik izan dut CD Elgoibarrekin lotura. Jokalari bezala hasi nintzen Elgoibarren, eta gero Anaitasunan ere egin nituen urte batzuk. Azkoiti eta Elgoibar artean egin nuen nire futbol ibilbidea. Jokatzeari laga nionean, entrenatzaile laguntzaile hasi nintzen, eta gero, zuzendaritzan sartu nintzen. Presidente izatea ez du inork nahi izaten, baina norbaitek hartu behar du lan hori, eta orain niri tokatu zait.

Zein da zure zeregina klubean?

Denetik egitea tokatzen zait. Egunero hiru ordu baino gehiago ematen ditut Mintxetan, entrenamenduak ikusten. Talde guztiei egin behar izaten diet jarraipena, denak direlako garrantzitsuak. Jokalariaik zaindu, gurasoak pozik eduki, entrenatzaileekin egon, eta gestio guztiak egitea tokatzen zait. Laguntzaile onak ditut, baina ordu asko eskaintzen dizkiot klubari.

Zein da zure lanaren alderik zailena?

Arazo ekonomikoak gainditzea da zailena. CD Elgoibarrek aurrekontu txikia dauka, eta Hirugarren Mailan gastu asko dago. Entrenatzaile tituluduna eduki behar da, eta hori ordaindu egin behar da. Aurten Igor Gordobil durangarra da Haundiko entrenatzailea, eta oso pozik gaude berarekin. Urko taldea entrenatzen zuen iaz, eta bere laguntzailearekin etorri da. Soldata horri, bidaiak, jokalariaik soldatak eta bestelako gastuak gehitu behar zaizkio. Diru sarrerak, gainera, jaitsi egin dira, bazkideak gero eta gutxiago direlako eta publizitate sarrerak ere %50ean jaitsi dira.

Haundiko jokalaria asko kanpokoak direla kritikatu izan zaio klubari. Zer diozu?

Haundin herriko jokalariaik jokatzea da

gure nahia, baina oso zaila da. Guk ez daukagu jokalariaik soldata ona ordaintzeko aukerarik, eta normala den bezala, gazte horiek nahiago dute diru gehiago ordaintzen dieten taldeetan jokatzea. Elgoibarren irteten diren jokalaria on guztiak kentzen dizkigute, bereziki, Bizkaiko taldeek. Mila euroren bueltan ordaintzen duten taldeak daude Hirugarren Mailan, eta guk 120 euro baino ez diegu ordaintzen. Urtero talde berria osatzen lan handia izaten dugu, baina soldata hutsaren hurrengoa den arren, taldea osatzea lortzen dugu beti, eta jokalariaik gainera, gustura egoten dira hemen, giro bikaina daukagulako. Klubak daukan onena horixe da.

Nolako futbol harrobia dauka Elgoibarrek?

Oso ona. Futbol eskolan 22 gaztetxo dauzkagu, eta gehiago espero ditugu. 10 urterekin hasten dira mutikoak futbolekin, eta bizpahiru entrenatzailek jarduten dute haiekin lanean. Umeak pozik etortzen dira futbolerari. Erregional taldea ere iaz mailaz igo zen, eta Haundiren ondorengo mailan egotea oso positiboa da guretzat.

Elgoibarko futbol zaleak nolakoak dira?

Haundi ikustera joaten da jendea, baina une honetan jarraitzaile talde sendoa erregionalak dauka. Koadrila handi bat elkartzen da partidak ikustera joateko, eta hori oso ona da, baina azken aldirian, bengalak pizten dituzte Elgoibarrek gola sartzen duenean, eta gero klubari isunak etortzen zaizkio. Hemendik eskatu nahi diet gazte horiei, mesedez, horrelakorik ez egiteko, klubari gastu handia eragiten dietelako isun horiek. Debekatuta dago bengalen kontua, eta isunak handiak dira.

BAZKIDEAK

Azkenaldian bazkide kopuruak behera egin du, eta une honetan 500 bazkide ditu CD Elgoibarrek. Bazkide bakoitzak 80 euroko kuota ordaintzen du urtean, baina presidenteak esandakoaren arabera, badaude oraindik kuota hori ordaindu ez dutenak, eta horiei Mintxetako bulegotik pasatzeko eskaera egin die.

AURREKONTUA

230.000 euroko aurrekontua dauka klubak, baina krisiak eragin nabarmena izan du klub zuri-gorrian. Publizitatetik lortzen du klubak aurrekontuaren zatirik garrantzitsuenetarikoa, baina azken urteetan izugarri jaitsi dira publizitate sarrerak. Lehen 80.000 euro inguru lortzen zituzten denboraldiko, eta aurten erdia lortzea aurreikusituta dute.

HAMAR TALDE

CD Elgoibarrek hamar talde dauka 2011-2012 denboraldian. Aurtengo berrikuntza handiena nesken taldea izan da, eta kluba oso pozik dago talde hori berreskuratu izanaz. Aurreko urtean Debako Amaiak Bat talde-
ra bideratu zituzten zenbait neska Elgoibarren ez zelako talderik osatu, baina aurten, neskenekin jokoan dihardute berriro. 10 urtetik aurrera, adin guztietako jokalariaik ditu klubak.

**FUTBOL ESKOLA
ALEBINAK
INFANTIL TXIKIAK
OHOREZKO INFANTILAK
KADETEAK (BI TALDE)
JUBENILAK
SENIOR NESKAK
ERREGIONALA
HAUNDI**

Argazki guztiak:
www.elgoibarren.net

Bihar, azaroak 19, jokatu dute Karakatera igoera

11:00etan irtengo dira korrikalariak Plaza Handitik

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, bihar jokatu dute Karakatera igoera. Parte hartzaileak goizeko 11:00etan puntuan abiatuko dira Plaza Handiko frontoitik eta Karakatero tontorrera ailegatzeko 700 metroko desnibela gainditu beharko dute 2,5 kilometrotan. Bakoitzak egokien irizten dion bidea aukeratu ahal izango du.

Iazko edizioan 60 lagunek hartu zuten parte, eta Oier Ariznabarreta durangarra izan zen irabazlea mutiletan, baina ez zuen lortu 2006an Aritz Kortabarria arrasatearrak ezarritako marka ontzea (29:00). Nesketan, Maite Maiora mendarorarrak dauka errekorra, 35:43 denborarekin.

Irabazleek txapela eta Mausitxako gazta jasoko dituzte, lehenengo gizoneko eta emakume elgoibartarrentzako Mausitxako gazta bana izango da saria,



eta azken metroak aurpegi onenarekin egiten dituenari ere, Mausitxako gazta bat emango diote.

Parte hartzeko irteeran bertan eman daiteke izena, Plaza Handian, lasterketa hasi aurretik.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Gernika 0 (3. maila)
 Elgoibar 1 – Oiartzun 1 (Ereg.)
 Elgoibar 1 – Amaikak Bat 2 (Ohorezko jub.)
 Aretxabaleta 0 – Elgoibar 8 (Kad. A)
 Elgoibar 1 – Urki 3 (Kad. B)
 Anaitasuna 2 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
 Urki 1 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)
 Mutriku 1 – Elgoibar 1 (Sen. nesk.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
 Gure Txeru 22 – Lagunak 17 (2. mailako jub.)
 Pala
 Alde Zaharra 14 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)
 Beloki 25 – Lagunak 22 (3. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Ebrosala 5 – Concepto Egile 4 (2.B)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 27 – Quiron 24 (Sen. mut.)
 IES Cons. 23 – Tecnomeca Elg. 27 (Sen. nesk.)
 Beristain Elg. 28 – Egia 29 (Jub. mut.)
 HTG Irun 19 – Usurbil 25 (Jub. nesk.)
 IMH Elg. 30 – Usurbil 13 (Kad. nesk.)
 Leitzaran 21 – Astigarraga Elg. 21 (Kad. nesk.)
 Eibar 35 – Bankoa Elg. 16 (Inf. mut.)
 Eibar 19 – Txarriduna Elg. 26 (Inf. mut.)
 Ikus Elg. 32 – Legazpi 8 (Inf. nesk.)
 Aterpe 16 – Aloña Mendi 9 (Inf. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 9
 12:30 Lanbroa – Idiazabal (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19
 10:00 Elgoibar – Bergara (Kad. A)
 12:00 Elgoibar – Anaitasuna (Sen. nesk.)
 16:00 Elgoibar – Lenitz (Inf. txiki)
 Domeka, 20
 10:45 Elgoibar – Ilintxa (Aleb.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 19
 11:15 Bankoa Elg. – Amenabar (Inf. mut.)
 12:30 Txarriduna Elg. – Eibar Ai (Inf. mut.)
 16:00 Astigarraga Elg. – Legazpia (Kad. nesk.)
 17:30 Tecnifuelle Elg. – Jarrilleras (Sen. nesk.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 18
 21:15 Lagunak – Gazteleku (1. mailako jub.)
 22:00 Lagunak – Intza (1. mailako nag.)
 22:45 Lagunak – Alde Zaharra (Pala)
 Domeka, 20
 12:00 Lagunak – Alde Zaharra (2. mailako jub.)

Hamalau lagunek hartu zuten parte 60 urtetik gorakoentzako kirol jardueran



Kirol Patronatuak eta Ongizate Sailak 60 urtetik gorakoentzako kirol jarduerak antolatu zituen joan zen astean, eta hamalau lagunek hartu zuten parte. Saio horietan Mintxetako aparkalekuan dauden gimnasia aparatuen erabilera egokia, beroketa ariketak nola egin, bihotz taupadak eta ariketen intentsitatea nola kontrolatu eta beste hainbat gomendio eman zituzten. Antolatzailerak gustura agertu dira jarduerak izandako erantzunarekin, eta aurrerantzean ere, mota honetako saioak antolatzeko asmoa erakutsi dute.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea zaintza eta garbiketerako prest. Orduka edo interna. ☎ **638 153 016**
- Emakumea zaintza eta garbiketerako prest. Orduka edo interna. ☎ **638 527 489**
- Emakumea lanerako prest. Ettxeko lanak, zaintza, garbiketarako edo dena delakoa. ☎ **697 649 399**
- Gizona lanerako prest. Gidabaimen guztiak ditut. ☎ **697 649 399**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **636 581 194**
- Emakumea lan bila. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lan bila. ☎ **618 050 902**
- Emakumea lan bila. ☎ **646 143 287**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo pertsona edadetuak zainduz. Interna, orduka edo asteburuetan egingo nuke lan. ☎ **669 994 669**

- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Ettxeko lanak egingo lituzke. ☎ **633 150 376**
- Emakumea lan bila. Esperientzi handia pertsona nagusiak zaintzen. ☎ **638 047 847**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **690 134 485**
- LH, DBH eta batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Lehen hezkuntzan, ingelesa eta matematikako klase partikularrak emango nituzke. ☎ **669 031 820**
- Emakumeak ordukako lanak egingo lituzke, elkarte edo portalen garbiketarako eginez edo gauaz pertsona nagusiak zainduz. ☎ **699 813 826**
- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Ettxeko lanak egingo lituzke. ☎ **690 925 929**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **647 175 093**

- Pisua alokatuko nuke. ☎ **680 808 125**
- Pisua alokatuko nuke, lau lagunekin familiarentzat. ☎ **943 742 599 / 692325 574**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokagai Leku Ederren, 4. solairuan (60 €). ☎ **660 042 159**

AUTOAK

- Autoa salgai. Opel Astra SS-AZ. Zuria, gasolinazkoa. 1.100 euro. Negoziagarria. ☎ **610 458 552**


BESTELAKOAK

- Canon EP-22 toner beltzak oparitzen ditut, berriak, erabili gabeak. Inpresora hauentzat balio dute: LBP-250/350/800/810/1110/1110SE/1120. ☎ **687 421 172**
- 2 urteko katua, kastratua eta atzazkalik gabea oparitzen dut, etxez aldatzen garelako. Goxoa, maitakorra, eta garbia. Etxean edukitzeko aproposa. ☎ **622 269 772**
- Gore-Tex gabardina salgai. Kolore gorri bizia, Ternua markakoa. Aukera ona: 99 euro. ☎ **659 986 943**


ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bi logela alokatzen dira gizonezkoentzat. Sukaldea eta erroa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**
- Emakumeak pisua alokatuko luke. Apartamentua edo 2 logelako etxea. ☎ **659 612 096**
- Emakumeak, hiru logelako pisua alokatuko luke. ☎ **699 813 826**



Azaroaren 21ean animatu zaitetz dantza egitera, **PLAYSTATION DANCE** jolasarekin!



Azaroak 25, **EMAKUMEAREN INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA: DOKUMENTALA.** Azaroaren 26an, Beldur Barik topagunera irteera.



Hostoak

ERMOUA ERMOUA ANTZOKIA

Azaroaren 25ean, barikua, 22:15ean Sarrera: 12 €

Logoak: Auzokariak, topagunera, Esporak, BFA DFB, bbk, Esporak, GARA, Dela, berria, 0+.



• Zorionak, **Telmo**, gaur zure urtebetetzia da-eta!! 8 patxo haundi danon partez, guapisimo!!



• Zorionak, **Danel**, azaroaren 21ean urte bat egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, lehengusina Nerearen partez. Muxu bat.



• Azkenean heldu da eguna, **Beñat!** Datoren asteartean 4 urte beteko dituzu! Ondo-ondo pasa eta muxu-txuak denon partez



• Zorionak, **Ane**, azaroaren 15ean 10 urte bete zenituelako, gurasoen, Noraren eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **printzesa!** Ilgandean 3 urte! Neska haundia, dagoeneko! Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



• 3+3, 4+2, 5+1=6 urte!!!! Zorionak, **Nahial** Maite-maite zaitugu Etxekoak.



• Zorionak, **Nora**, atzo, azaroak 17, 3 urte egin zenituelako. Familiako-en partez.



• Zorionak, **Haritz**, astelehenean 10 urte egin zenituelako. Gurasoen eta lagun Nagore eta Julenen partez.



• Zorionak, **txapeldun!** 6 urte potolo beteko dituzulako astelehenean. Muxu asko etxeko-en partez.



• Zorionak, **Unai**, 11 urte bete dituzulako. Guraso, anaia Elur, arreba Garazi, lehengusu eta amonaren partez.



• Zorionak, gure pilotuari, eta zorte on domekan! Muxu asko, gurasoen partez.



• Zorionak! Azkenean 10 urte, ezta **Zorione?** Muxu bat familiako-en partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen hirugarren urtebetetzean. Muxu handi bana, etxeko guztien, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Maialen eta Irati**, azaroaren 8an zuen urtebetetze eguna izan zelako. Familiako-en eta lagunen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **aittita**, asteartean zure urtebetetze eguna delako. Muxu pila bat etxeko-en, eta bereziki, biloba Paul eta Lararen partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Azaroaren 12an 1966an jaiotako 49 lagun bildu ginen 45 urteak ospatzeko. Oso ondo pasatu genuen eta 50ak egin aurretik beste bat egiteko gogoarekin gelditu ginen. Ea ba falta zirenak hurrengoan gurekin ditugun!

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

18 barixakua

Politika

19:30 Amaiurren aldeko ekitaldi politikoa
Mendarozabal plazan.
Mendaron.

19 zapatua

Kirola

11:00 Karakatera igoera
Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta.

20 domeka

Kontzertua

21:30 Harry Bird
Eskoziako musikariaren folk emanaldia. Iratxo tabernan.

21 astelehena

Musika

19:30 Santa Zezilia kontzertua
Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute, musika eskolako auditorioan. Ekitaldian diploma-banaketa egingo dute.

Tailerra

17:30 Arte tailerra
Haizeak antolatuta

22 martitzena

Musika

8:30 Santa Zezilia eguneko kalejira
Ikastolako umeek kalejira egingo dute, Plaza Handitik Ikastolaraino. Arratsaldean, Ikastolatik Plaza Handiraino egingo dute ibilbidea, 16:15ean hasita.

Ikus-entzunezkoa

15:00 'Zaldiz, mugarik gabe'
Saharako basamortuan eta Mongoliako estepan eginiko bi bidaia kontatuko dituzte Asier Aranzabalek eta Mila Gallastegik. Kultur Etxean, AEK euskaltegiak antolatuta.

Antzerkia

17:00 'Hiru lumak'
4 eta 5 urteko umeentzako antzerkia, Udal Liburutegian.

Tailerra

18:00 Literatura tailerra
Haizeak antolatuta, *Vita Brevis* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

Musika

18:00 Kalejira
Santa Zeziliaren omenez kalejira egingo dute Musika Eskolako taldeek.

23 eguztina

Ikus-entzunezkoa

21:30 'Euskal Herriko paisajea'
Morkaiko antolatuta, Jakoba Errekondok eta Asier Galdosek eskainiko dute hitzaldia. Musika Eskolan.

AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

21 ASTELEHENA

18:30 Hitzaldia: Tratu onak.
Kultur Etxeko hitzaldi gela: Norma Vazquez

24 EGUENA

17:00 Elgoibar Beldur
Barik lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa Kultur Etxeko Sotoan.

25 BARIKAKUA

ELGOIBARREN
17:00 Elgoibar Beldur
Barik lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa Kultur Etxeko Sotoan.
19:00 Elkarteratzea, Plaza Handian
19:30 Elgoibar Beldur

Barik lehiaketako sari banaketa, Kultur Etxeko Sotoan

MENDARON
17:00 Mural margoketa
Mendaroko frontoian
Jarraian bizkotxo eta txokolate jana
Mendaroko frontoian

26 ZAPATUA

17:00 Ipuinkontalaria
Amesti kontakizunak, Sonia Villamor ipuin kontalariarekin, Gotzon Garate Udal liburutegian.

OKINDEGIA

FARMAZIAK (24 orduz)

18 Zabaleta
19 Etxeberria (*Errosario*)
20 Etxeberria (*Errosario*)
21 Ibañez
22 Garitaonandia-Bidasolo
23 Etxeberria (*Santa Ana*)
24 Fernandez
25 Etxeberria (*Santa Ana*)

20 domeka EIZAGIRRE

Fernandez
Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 751 142
Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638
Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Larry Crowne: nunca es tarde»

18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:00/22:15
20, domeka: 19:00
21, astelehena: 21:30

«Phineas y Ferb: la película»

20, domeka: 16:30

«Los pasos dobles»

Ongarri zine-kluba
24, eguztina: 21:30



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda.

Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak eta familia konstelazio tailerrak. Herbodietetikan eta fitoterapien aholkularitza, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. Berial

- Trinidad esentziak.

- Astero, barazki biologiko otarrak.

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

Sanatana Dharma

Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaron astelehen eta aste-

azkenetan: 15:00-16:30

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero:

9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dratzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

San Frantzisko kalea, 40

(atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera:

8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurri egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen

zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.

Fisioterapia eta osteopatia.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

C.R.F. erreabilitazio zentroa

(Partikularrei eta seguru bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

San Inazio, 2

Tel.: 943 743 374

Astelehenetik ostiralera:

8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10

Tel: 943 743 734

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 740 359

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

- Diagnostiko digitala

- Estetika

- Kirurgia eta inplanteak

- Ortodontzia: haurrak eta helduak

- Protesiak: finkoak eta eraginak

- Odontologia orokorra

- Higienea eta prebentzioa

- Periodontzia (entzien

tratamendua)

- Harrentzako tratamenduak

- PADI

Elena Herrero Lobo medikua

Aita Agirre enparantza,

5 behea.

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta

telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869



BOZKATU

**asko gera
eraiki dezagun zubia!**



BOZKATU

amair

eraiki zubia!